

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2011ko ekainaren 14a. VIII. urtea. 2.243. zenbakia tolosaldea.hitza.info

Larraulek du orain Eskola Txikien Festa antolatzeko ardura

Abaltzisketako Txalburu eskolako arduradunak «oso pozik» daude igandeko festak izan zuen harrerarekin **02**



Txantxoek ere lagundu zuten lekukoa Larrauli ematen. S. GOMEZ



M. USARTENDIENA

→ Auzo txikien alaitasuna Izaskunen eta Aldaban.

Giro ona nagusitu da hiru egun iraun eta atzo amaitu ziren Ibarako Izaskun auzoko jaietan; Tolosako Aldaba auzoan, aldiz, Harri Festa mahaiaren inguruan ospatu zuten San Antonio egunean auzotarrek. **06**

Mikel Olaetxeak irabazi du bigarren mailako eskuz banakako txapelketa

Lau t'erdiko eta binakako txapelaren ondotik lortu du buruz-burukoa, Merino I.a 18an utzita **06**

Nerea Iglesias
Ileapaindegia

Kupoi hau erakutsiz
%20
deskontua ekainean
astelehenetik asteazkenera!

Larraitz auzoa 25 behea 20260 Alegia Tel.: 943 65 14 11

Ennausketa zerb-tru berria martxan!
Ennausketa, labe propioarekin.

Ennausketa zerb-tru berria martxan!
Ennausketa, labe propioarekin.



Tolosan, Ibai Iriartek hartu du alkatea; Leitzan, Oier Eizmendik; Ibarako alkate berria Jesus Peñagarikano izango da; Anoetan, Pedro Maria Estangak hartu du agintea. HITZA/R.C./M.U./E.M

Lau urterako agente-makila hartu dute alkate berriek

Eskualdean, pasa den larunbat goizean ospatu zituzten udalbatza berriak eratzeko osoko bilkurak

Itzea Urkizu

Pasa den larunbaten, ekainak 11, eskualdeko udal eraketak ospatu zituzten.

Tolosaldeko nahiz Leitzaldeko udal gehienetan, Bildu koalizioako alkategaiek hartu dute alkate postua lau urterako; beste hainbat herritan, herri plataformako alkategaia suertatu da bozkatue-na. Albizturren, bestalde, Aralarreko alkategaiek hartu du agintea, eta Adunan, aurreko udalbatzak jarraituko du funtzioetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki bat hartu arte.

Lizartzan prentsaurrekoa

Lizartzan, lau urteren ondoren, udaletxeko balkoian ikurrina jarri zuten herritarrek, osoko bilkuran ondoren.

Era berean, Bai Euskal Herri-rik prentsaurrekoa eskaini zuen plazan. Lizartzan «urte luze eta latzak» bizi izan dituztela aipatu zuten, baina «gaua amaitu dela» nabarmendu zuten. «Mapetan agertu ez arren, existitzen gara», aldarrikatu zuten. Lizartzan eta Euskal Herri osoan, «Euskal Herri euskaldun bat lortzeko lan egin behar» dela azpimarratu zuten. Prentsaurrekoa amaitu eta gero, lau urtez herriko balkoietan egondako ikurrinak zintzilikatu zituzten udaletxe inguruan.



Galder Azkue izango da Villabonako alkatea. A. IMAZ



Altzoko alkatea Miren Balerdi izango da. I. GARCIA



Leaburuko alkate berria Maria Luísa Uzkudun izango da. M. UGARTEMENDIA



Lizartzan Bai Euskal Herri-rik prentsaurrekoa eman zuen. A. IMAZ

↓ Eskualdeko alkateak

- **Abaltzisketa.** Jon Zubizarreta.
- **Aduna.** Arantza Aburuza.
- **Albiztur.** Gregorio Iraola.
- **Alegia.** Unai Iraola.
- **Alkiza.** Juan Inazio Umerez.
- **Altzo.** Miren Balerdi.
- **Amezket.** Iñaki Amundarain.
- **Anoeta.** Pedro Maria Estanga.
- **Areso.** Ur Alguero.
- **Asteasu.** Maria Pilar Legarra.
- **Baliarrain.** Martzelino Dorron-soro.
- **Belauntza.** Mariano Lazkano.
- **Berastegi.** Aritz Mujika.
- **Berrobi.** Joseba Iñigo Aierza.
- **Bidegoian.** Jose Ramon Goizietxea.
- **Elduain.** Iñigo Etxebeste.
- **Gaztelu.** Mikel Beloso.
- **Hernalde.** Igaro Balda.
- **Ibarra.** Jesus Peñagarikano.
- **Ikaztegieta.** Iker Otamendi.
- **Irura.** Ainhoa Ugalde.
- **Larraul.** Xabier Mujika.
- **Leaburu.** M^{re} Luísa Uzkudun.
- **Leitz.** Oier Eizmendi.
- **Lizartza.** Aitor Agirre.
- **Orendain.** Gorka Egia.
- **Oresa.** Eneko Maioz.
- **Tolosa.** Ibai Iriarte.
- **Villabona.** Galder Azkue.
- **Zizurkil.** Jose Maria Luengo.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosa >



BISIGUEK ETA OLAGARROEK ALDE EGIN DUTE TOLOSATIK

III. Bisiguaren Festa ospatu dute Tolosako Zerkausion asteburuan. Txinparta elkarteak, «aurreko bi edizioetan lortutako arrakasta» ikusita, hirugarren bezalako antolatua du Tolosako eta Orioko udalekin elkarlanean. An-

tolatzaileen esanetan festa «arrakastatsua» izan da, «inoiz baino giro hobea» eduki dutelako: «Ehunka pertsonak dastatu dute goi mailako kalitateko bisigua, eskarmentu handiko hiru parrillarik prestatuta». Bestal-

de, Triangeluan galiziar festa ospatu dute asteburuan, bertako produktuak dastatzeko aukera eskainiz. Hauek ere «oso pozik» agertu dira bai partaidetzarekin eta baita lortutako emaitzekin ere. ASIERIMAZ

Tolosa >



TOLOSAKO ALARDEAREN LEHEN URRATSA

Tolosako I. Alardea igandean ospatu zuten herritarrek, Andia Kultur Elkarteak antolatuta. Napoleonen armadari ingelesak eta portugeseak egin zioten aurre, Nafarroako Zubian. Bolbora usainak Tolosa erdialdea hartu zuen, duela ia 200 urteko gatazka gogoratuz. Andia kideek ekimenari jarraipena eman nahi diote hurrengo urteetan, baita San Joan jaietan txertatu ere. ITZEA URKIZU

Tolosa >



BULAR-EMATE KOLEKTIBOA

Bular-emate kolektiboa egin zuten Tolosako Aranburu jauregiko berdegunean. 30 ama elkartu ziren euren haurrekin, edoskitzea normalizatzea eta sustatzeko antolatu zuten ekimena, gaiaren inguruan hitz egiten aritzeko ere aprobetxatu zuten goiza. M. SOROA

Ibarra >



AUTOZALEEN GOZAMENA

Auto lasterketetako zaleen bilgune bilakatu zen Ibarra larunbatean. Bertan, 35 ibilgailu baino gehiago eta 50 lagunetik gora elkartu ziren, www.maskarreras.com webguneak antolatutako ekimenean. Egoitz Prieto ibartarra izan zen ekimenaren sustatzailea. M. U.

Uxola Sariak 2011

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info

Asteartea, 2011ko ekainaren 14a

EUSKAL PIZKUNDEA: IZAN ZIRELAKO GARA, ETA GARELAKO IZANGO DIRA



Aitzol Euskal Pizkundeari hasiera emateko Jose Ariztimuño idazlearen testuen irakurketa publikoa egin zuten herritarrek Tolosako Kultur Etxean. HITZA

Euskara eta euskal kulturaren aldeko lana

Aitzol Euskal Pizkundea ekimenaren urtea da 2011. Aitzol jaio zeneko 115. urteurrena da, eta euskara eta euskal kulturaren alde lana egin zutenak gogora ekartzeko unea ere bada. 2011ko Uxola Sariak ere ekimenaren barruan kokatu behar ditugu.

Aitzolen jaiotzaren 115. urteurrena gogoan

Aurtengoa Aitzol Euskal Pizkundearen urtea da; euskal pizkunderen parte hartu zutenak omentzeko urtea

Euskal Pizkundera edo Lehen Euskal Pizkundera euskal literaturak bizi izandako garai eman-koraren izena da, XIX. mendeko bigarren erdialdetik XX. mendeko lehen erdialdera arte luzatutakoa. Lizardiren *Euskal Pizkundera* poematik dator izena, baina Lizardi ez da mugimendu oparo hartan kokatu behar den bakarra, ezta Estanislao Urruzola, Uxola, bera ere, gogora ekarri behar ditugu baita Lauaxeta, Antonio Maria Labaien, Doroteo Ziaurritz, Ixaka Lopez Mendizabal, Orixe, Jautarkol, Pio Montoia, Jesus Elozegi, Uzturre, Pilar Sansinena, Lupe Urkiola, Basarri, Kizkitza eta abar luze bat.

Aitzol Euskal Pizkundearen urtea
2011 Aitzol eta Euskal Pizkundearen urtea da, Aitzol eta euskal pizkundearen partaide izan ziren gizon-emakumeen irudia, bizitza eta egintza ezagutzera eman nahi da, auzolanean antolatutako omenaldi zabal eta koral batean.

Aitzol gidari, eta bere ezagutzatik, belaunaldi hartako eragile haiek gogora ekarri, horixe da xedea. Hau da, Aitzol eta belaunaldi guzti hura, presente izan Tolosan,

Gipuzkoan eta Euskal Herrian eta, haiek egindakoa aldarrikatzeaz gainera, egun duen eragina hausnartu nahi da.

Urriaren 17an Aitzolen heriotzaren –fusilamentuaren– 75. urteurrena betetzen da. Heriotzaren urteurrenaren aitzakiarekin, pizkunderari egin nahi zaio gorazarre, Aitzol eta bere lagunen bizitza eta bizia bera da gaia, pizkundera da gaia. Bizitzari egindako omenaldi bizia da, Euskal Herriari egin zioten ekarria –euskara, kultura, herrigintzaren eta askatasunaren alde– nabarmentzeko eta horren eragina ezagutzera emateko, euskal gizarteari, oro har, eta gazteei bereziki.

Bai Aitzol eta berarekin batera bere lagunak berritzaileak izan ziren, indar berria eman zioten euskal gizarteari, alor oso desberdinetan, euskara, kultura, artea eta gizartearen sustatuz, eta Euskal Herria egituratuz.

Aitzolek eta bere lagunak, gizon-emakume haiek, elkarrekin, honako ezaugarriak dituzte: eragile izatea eta euskaren, euskal kulturaren, eta herrigintzaren alde egitea. Haien konpromisoa Euskadiren, Euskal Herriaren, eta euskal gizartearen alde lan egitea izan zen, herri honi bide berriak eskaini. Beraien eskutik gauzatu zen Errepublika garaiko euskal pizkundera eta pizkunderen haririk iritsi gara egungo-



Urteurreneko ekitaldietako bi: Aitzol jaiotzaren zeneko etxean jarritako plaka, eta Zintzuen Basoa. HITZA-LGARCIA

ra. Izan zirelako gara, eta garelako izango dira, dio esakuneak. Akats beldurrik gabe, esan dezakegu Aitzol eta euskal pizkunderen gizon emakumeekin hori horrela izan dela. Honetan, katea ez zen eten.

Tolosako herriak eta Euskal Herriak egindako omenaldia da. Proposamena eta aldarria Tolosatik sortu da eta parte batean herriaren bertan, Tolosan, kokatzen da. Baina Aitzol Euskal Pizkundearen urteurrena Euskal Herri osora ere zabaltzen da.

Zergatik urteurrena Tolosan?

Aitzol bera eta –Joseba Ariztimuño bezala– berarekin euskal pizkundearen eragile izan ziren lagun asko eta asko, tolosarrak ziren, hala Tolosan bizi izan zirenen Aitzol bitarteko, harreman zuzena izan zuten Tolosarekin. Gainera, Doroteo Ziaurritz eta An-

tonio Maria Labaien, euskal pizkundearen eragile nagusiak biak ala biak, Tolosako alkate izan ziren. (Ziaurritz Errepublikako lehen alkatea izan zen eta Estatuaren aldeko Lizarrako Biltzarraren parte hartu zuen eta Labaien alkate zen 1936an).

Tolosako ekitaldiak

Tolosan, Aitzol Euskal Pizkundera izenpean Joseba Ariztimuño, Aitzolen jaiotzaren 115. urteurrena ospatzeko urtea da honakoa. Urteurrenarekin aipatu idazle guztiak gogora ekarri nahi dira, euskara, euskal kultura, eta gizartea bera, Euskal Herria, ezin direlako ulertu Aitzol eta euskal gauzatu zuten gizon-emakume haiek gabe, haiek egin zutena kontutan hartu gabe, eta belaunaldi belaunaldi egiten dena gabe.

Urteurrena behar bezala ospa-

tzeko ekitaldi ugari egin dira orain arte Tolosan.

Martxoan Aitzol euskaltegiaren egoitzatik aterata, herri agintariek eta herritarrek, Gorosabel kaleko 12. atarira joango ziren eta bertan, Aitzol jaiotzaren zeneko etxean, hori gogora dakarren plaka zabaldu zuten. Ondoren, Aitzol Euskal Pizkundearen urteurreneko aldarria irakurri ondoren, eta Aitzoli buruzko bideoa proiektatuta, Joseba Ariztimuñoren idazlanen irakurketa jarraitua egingo zen.

Tolosako Elozegi parkean, Zintzuen Basoari hasiera ere eman zitzaion, Tolosako neska mutiliek hamaika zuhaitz landatu zituztelarik, belaunaldi berriek kimu berriak eskaini Aitzol eta Euskal Pizkundearen basoari. Horrekin ekarri zizuten gogora Aitzolekin batera, belaunaldi hartako gizon-emakumeak.

Urduritasunak nagusi sari banaketan

Atzo banatu zituzten Uxola lehiaketaren 2011ko sariak; gazteen artean urduritasuna izan zen jaun eta jabe

↓ 2011ko sarituak

LEHEN HEZKUNTZAKO 3. ETA 4. MAILAK (8, 9 ETA 10 URTE)

- **Hizlaua.**
1- Alaitz Artola Ormazabal, *Farish eta izarra.*
2- Uxue Magro Izagirre, *Alze... noseque.*
3- Leire Arrate Arana, *Deabrua eta harri magikoa.*
- **Olerkia.**
1-Lide Lertxundi Telleria, *Kanikak klin Klan.*
2- Lore Etxeberua Urkola *Nire etxeko doinu bakarra.*
3- Ex aequo: Xuban Esnaola Mendizabal, *Katagorria;* eta Ane Nogales OIartzabal, *Maitasuna.*

LEHEN HEZKUNTZAKO 5. ETA 6. MAILAK (10, 11 ETA 12 URTE)

- **Hizlaua.**
1- Iosu Molinero Garcia, *Negar malko hotzak.*
2- Irene Etxabe Beobide, *Armetsetako bidaia.*
3- Imanol Arregi Rodriguez, *Zuhaitz misteriotsua.*
- **Olerkia.**
1-Ainhoa Gibelalde Eraso, *Tristura eta alaitasuna.*
2- Lorena Agirre Urbizu, *Zure bihotza.*
3- Itsaso Oreja Mitxelena, *Gogoratzen naiz.*

DBH-KO 1. ETA 2. MAILAK (12, 13 ETA 14 URTE)

- **Hizlaua.**
1- Iñigo Puerta Uranga, *Bidaia bat iraganean zehar.*
2- Libe Barriola Goikoetxea, *Inoiz sentitutakoa.*
3- Leire Elola Aranguren, *Sleem marinelaren kondaira.*
- **Olerkia.**
1-Leire Alargunsoz Maiztegi, *Itsasoa.*
2- Amaia Uranga Perez *Nire tristura.*
3- Ainhoa Mendiluze Ormaetxea, *Irribarrea.*

DBH-KO 3. ETA 4. MAILAK (14, 15 ETA 16 URTE)

- **Hizlaua.**
1- Larraitz Barrio Goikoetxea, *Kenya.*
2- Nerea Laso Peña, *Nola malko bat isurtzen den itsasoaren aurrean.*
3- Mireia Vicente Pagola, *Hitzetatik ihesi.*
- **Olerkia.**
1-Urki Galarraga Alvarez, *Musika.*
2- Irene Arin Subijana, *Hankaz gora.*
3- Leire Azkue Liceaga, *Salbamenari eskutitza.*

Tolosaldeko ikasleen literaturaren jaiaren sari banaketa izan zen atzo. Tolosako Kultur Etxean bildu ziren saridunak, eta banan-banan oholitza gainera igo eta zegoen garaikurra hartu zuten.

1986. urtetik antolatzen du Uxola Sariak lehiaketa Tolosako Udalak, eta urtero kalitate handiko lanak aurkezten dituzte gazteek. Aurtengoa epaimahaia Agustín Amianok, Bittor Madinak, Juan Kruz Igerabidek, eta Karlos Linazasorok osatu dute.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila: Hizlaura

Alaitz Artola Ormazabal • 1. saria

‘Farish eta izarra’

Garai hartan jirafek ez zuten lepo luzerik, oso motza baizik. Horietako bat Farish zen, oso maiteko rra eta ederra. Bere bi adartxoak buru gainean eta belarriak, erne, inguruko animaliek esaten zutena ongi entzuteko.

Gorputza, horia zuen, limoia

bezain horia, marroi koloreko mantxatxo apainez jantzia. Isatsa, aldiz, motza, ispu baten antzera.

Gau izartzu batean Farish lo hartu ezinik zegoen. Zerura begiratu zuen eta milaka izarrez beterik zegoela ohartu zen. Puntutxo

zuriz ziprztindutako oihal beltz bat zirudien, baina bat ezberdina zuen guztiz, handiagoa, ederragoa, disdiratsua...

Anitz ederra zen Farishen antzera. Esan daiteke biak maitemindu zirela. Egunak eman zituzten lo egin gabe elkarrri begira.

Egunez egun maiteminduago zeuden. Pixkanaka, Farishen lepo motza luzatuz joan zen izarren ondoan egoteko beharra zeukalako. Badakizue orduz geroztik jirafa guztiek lepo luzea dutela eta izarren lagun minak direla? Halaxe da ba!



Uxue Magro Izagirre • 2. saria

‘Alze... noseque’

Kaixo! Nik Ane izena dut, orain okupatuta nago etxeko lan bat egiten ari naizelako.

Gure maisuak eskatu digu, barre egin dudan baten kontakizuna ekartzea. Eta orain gogoratu naiz!

Kaximiro da ezagutu nuen agur gaixoa. Nire ahizpa Maddi, klinikari zegoenean ezagutu nuen

eta bere pasadizoan kontatzen zizkidan ospitalean zegoenean. Adibidez: Tuberietatik gora eta beheara ibili, amona bati armiarma bat bota, aiton zahar bati sueroa kendu, eta Koka-Kola jarri, mediku bati txertoa jarri ipurdian... eta horrela mila istorio.

Egun batean klinikara Kaximiro bisitatzea joan nintzenez,

bere gelan sartu eta oihuka eta garrasika hasi zen:

-Lagundu! Lagundu!

Medikua etorri zitzaionean eta ni han ikusi ninduean, azaldu zidan Kaximirok gaixotasun bat zuela *alzenoseque* izenekoa eta burua galtzen ari zela.

Ordutik txarteltxo batekin sartzen nintzen bere gelan eta txar-

teltxoan nire izena jartzen zuen nitaz gogora zedin.

Orain nik erakusten diot bihurrikeriak egiten: amonari armiarma jarri, sueroaren ordez Koka-Kola sartu...

Kaximiro gaixoa! Nik uste dut medikuak nahastu egin direla, ez daukala *alzenoseque*, umea bihurtu dela baizik.



Leire Arrate Arana • 3. saria

‘Deabrua eta harri magikoa’

Duela urte asko, gu gauden lekutik oso urrun, Aitor eta Ana izeneko bi anai-arreba behartsu bizi ziren. Egun batean Aitor eta Ana paseatzen ari zirela harri bat topatu zuten. Harriari begira zeudela agure zahar bat etorri eta honela esan zion:

- Nahi al duzue harri magiko hau?

Aitorrek erantzun zion:

- Ongi da!

Harria hartu eta etxera eraman zuten pozik bi anai-arrebek.

Etxera iritsi zirenean bi zakur aurkitu zituzten etxe atarian. Ai-

torrek honakoa esan zuen orduan:

- Alajaina, bi zakur gure etxean! Begira Ana, bi zakur hauekin azeriak ehizatzea joaterakoan diru mordoia lortuko dugu saltzerakoan eta oso ondo biziko gara.

- Ideia ona da bai, Aitor!- erantzun zion Anak.

Aitor ehizara joan zenen Anari deabrua agertu zitzaion eta deabruak hauxe esan zion:

- Emazkidazu bost hatz!

- Nola? Bost hatz? Ez, ez dizkit emango, nola ba?-erantzun zion Anak.

- Jan egingo zaitu orduan!- esan zion deabruak.

Anak beldurtuta deabruak agindutako bost hatzak eman zizkion. Ondoren deabruak esan zion ez esateko inori, bestela jan egingo zuela. Anak beldurtuta ez zion Aitorri ezer esan.

Iluntzean Aitor ehizatit itzuli zenerako Ana lokartuta zegoen eta ez zen ezertaz konturatu. Hurrengo egunean Aitor berriz ere ehizara joan zen. Ana bakarrik gelditu zen etxean eta hantxe agertu zitzaion berriz ere deabru gaiztoa. Lau hatz eskatu zizkion

oraingoan eta, azkenean, Anak beldurraren beldurrez eman egin zizkion. Hura zen oinazea Anarena, eskuetatik odola zerion eta gaixotu egin zen. Aitor etxera itzuli zenean Anak guztia kontatu zion eta hurrengo egunean deabruaren zain etxean geratzea erabaki zuen. Deabrua agertu zenean, biak isilik geratu ziren une batez. Orduan, honela esan zuen deabruak:

- Zeinen arraroa! Ana gaur ez dago etxean!

Orduan, Aitorrek amorratuta harri magikoa lurrera jaurti zuen

eta harri magikoa hamaika zati-tan puskatu zenean Anari bere bederlatz hatzak itzuli zitzaizkion. Deabrua desagertu egin zen betirako eta bi anai-arrebak zoriontsu bizi izan ziren handik aurrera azeri larrua saldututa.

Bat, bi, hiru eta lau, bukatu da ipuin hau!



Lizardi Orixe Garitaoindiaren omenaldian.

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila: Olerkia



Lide Lertxundi Telleria • 1. saria

‘Kanikak klin klan’

Kanikak
lurrera erortzean
klin, klan.

Kanikak
beste bat jotzean
klin, klan.

Kanikak
bueltak eta bueltak ematean
klin, klan.

Eta ni, zure soinua entzutean,
pozik, irriz,
klin, klan
entzutean,
pozik, irriz,
zurekin jolastean.



Lore Etxaburua Urkola • 2. saria

‘Nire etxeko doinu bakarra’

Ama ama ama.
Hau da nire ahotik
atera zen lehen hitza.

Ama ama ama.
Hau da gure etxean
entzuten den doinu bakarra.

Ama ama ama.
Berak baretzen du
gure artean sortzen den liskarra.

Ama ama ama.
Bere eskuekin orrazten

digu gure kalparra.

Ama ama ama.
Bere magalean
sendatzen zait niri sukarra.

Ama ama ama.
Bera da bizitzako
gidari baikorra.

Ama ama ama.
Nik beti izango dut
zure beharra.



Xuban Esnaola Mendizabal • 3. saria

‘Katagorria’

Kata kata kata
katagorria,
katagorri gorria
zuhaitzetik eroria.

Kata kata kata
katagorria,
medikutara
katagorri elbarria.

Kata kata kata
katagorria,
sendatu ostean
basora etorria.

Kata kata kata
katagorria,
aurrerantzean
aurpegian irria.



Kata kata kata
Katagorria.

Ane Nogales Oiartzabal • 3. saria

‘Maitasuna’

Maitasuna
ahotik sartu eta
bihotzean geratzen da.

Maitasuna
oso gauza polita da eta
bihotza irekitzen bada,
maitasuna ere ateratzen da
bihotzetik.



Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila: Hizlaura

Iosu Molinero Garcia • 1. saria

‘Negar malko hotzak’

1864. urtea. Udazken garaia da eta Italian gerra hasita dago.

Nahiko hotz handia egiten du eta Napoles herriko familientzat garai txarrak dira. Napoles izan da gerrak gogorren astindu duen Italiako zonaldea. Bertan hamar bat bonbardaketa izan dira eta hildakoak ehunka kontatzen dira.

Bertako biztanleen aurpegietan ikus daitezke gerraren ondorioak: begi tristeak, gosearen eraginez gorputz ahulak ...

Napoleseko familien artean, Fabio eta bere anaia txikia Lukas bizi dira. Fabio 13 urteko mutila da, ez oso altua, ile horia eta begi berde argikoa. Bere anaia, Lukas, 8 urte besterik ez ditu, ile marroia eta begi beltzekoa da.

Beraien gurasoak desagertu egin ziren gerra hasi zen bezain

laster eta bi anaia bakarrik geratu ziren. Bata bestea zaintzen, beraien gurasoen zain.

Ez etxerik, ez janaririk. Horregatik herriko elizan egiten zuten lo eta bertako apaizak emandako janariarekin konformatu behar izaten zuten. Fabio gehienetan afdaldu gabe oheratzen zen bere anaia bere afaria ematen ziola...

Egunak joan eta egunak etorri, udazkenetik negura pasa ziren ia ia konturatu gabe. Fabio eta Lukas geroz eta tristeago sentitzen ziren beraien gurasoen falta sumatzen zutelako. Goiz batean eskutitz bat iritsi zen elizara, bertan bi anaian hildako gurasoen gorpuak izan zitezkeenak agertu zirela zioen. Fabiok Lukas eskutik eutsi eta begirada sakon batekin esan zion:

-Goazen gorpuak gure gurasoenak diren ikustera, eta hala bada, azken agurra ematera.

-Oso urruti al daude aita eta ama? -Galdetu zuen Lukas.

-Ez, 15 minutu oinez besterik ez -esan zuen Fabio.

Fabio, Lukas eskutik heldu eta oinez abiatu ziren.

Napoles inguratzen zuen basoan sartu ziren. Bertan hirian baino hotz handiagoa egiten zuela zirudien. Hamabost bat minutu oinez ibili ondoren, zelai batera irten ziren. Zulo batean bi gorpu ikusi zituzten.

Momentu horretan elurra egiten hasi zen. Gorputz gerturatu ziren bitartean geroz eta elur gehiago pilatzen zen zelaian, geroz eta zuriagoa zen paisajea... Hildakoetara iristean, segituan ezagutu zituzten beraien guraso-

ak, Lukas amaren alboan makurtu zen bere aurpegi zuria laztantzeko; aurpegi zuria eta hotza laztantzeko.

Fabio bazekien ezin zuela negarrik egin bere anaiaaren aurrean, indartsuarena egin beharra zeukan Lukas beldurrik ez edukitzeko. Fabio, anaia eskutik heldu eta hildakoei bizkarrak eman zien.

Orduan, Lukas zerbait sumatu zuen bere eskuan, inoiz sentitutako malko hotzena zen, bere anaiaaren malkoak, hain zuzen ere.

Fabio negarrez ari zen isiltasunean eta Lukas konturatu zenean besarkada estu bat eman zion lasai negar egin zezan.

Minutu batzuk pasatakoan, malkoak lehortzeko keinu egin zuenean konturatu ziren malko-



ak elur bihurturik zeudela. Bi anaia eskutik helduta herriarantz abiatu ziren berriro eta Fabio atzerantz azken begirada bota zuenean gorputzak elurrez estalita zeudela ikusi zuen.

Semeen negar malko elurtuak estaltzen zituzten bere guraso maiteak.

Irene Etxabe Beobide • 2. saria

‘Ametssetako bidaiaria’

Bazen behin, kostaldeko etxe batean, gizon bat. Zoritxarrez, bere alaba bakarria desagertu eta ez zuen berari buruz ezertxo ere jakin. Egun hartatik, gizon hark ez zuen inorekin hitz egiten. Ez zen etxetik irtetzen; ez zuen irribarrik egiten; ez zuen ezer jaten ... Baina behin ganbarara igo zen. Bertan, denbora asko igaro zuen, oroitzen gogorarazten. Baina halako batean, mapa baten azpian kutxa zahar bat ikusi zuen. Orduantxe gogoratu zuen bere alabak eguneroko bat zuela eta bertan idazten zituela bere sekretu guztiak. Egunerokoa kutxa hartan gordetzen zuen. Segituan ireki zuen eta bertan hauts eta armarmasare asko zeuden, ez zuen egunerokorik ikusten. Etsitzen hasia zen, baina halako batean kutxaren barren barranean liburu antzeko bat ikusi zuen: Egunerokoa zen! Gizonak bihozkada bat izan zuen.

Hasi zen irakurtzen, eta gauza interesgarri bat irakurri zuen; bere alabaren ametssetako bidaiaria zen. Arrasto horrek ideia bat eman zion: Agian ez zela bahiketa bat izan bere desagertpena, agian bere kabuz joan zela. Baina ideia hori burugabekeria bat iruditzen

zitzaien. Baina gehien harritu ziona, bere ametssetako bidaiaria hori ez zela maila handikoa zen, arraroa egin zitzaien. Pentsatzen jarri eta opor batzuk komeni zitzaizkiola bururatu zitzaien. Hain zegoen bakarrik... Ez zuen pentsatu ere egin zein izango zen bere bidaiaren helmuga, bere alabaren ametssetako bidai horretara joateko txartela hartu zuen. Gau hartan, oso nekatuta sartu zen ohera, egun luzea izan baizen eta hegazkina hurrengo egunean zain edukiko zuelako. Oso azkar joatea erabaki zuen bihozkada bat zuelako, bihozkada ona. Ez zuen arropa askorik hartu herri hartan ere ez zutelako aberastan handirik. Afrika zen bere bidaiaren kokalekua.

Segituan nabaritu zuen hegazkina airean zegoela. Zerura begiratu eta izar bat berari dir-dir egiten ikusi zuen. Lo hartu zuen. Esnatu egin zuen megafoniako hitzek, iritsi zirela esanez. Berriz ere, bihozkada izan zuen, baina hau sakonagoa izan zen. Bidaiaria oso luzea izan zenez, taxi bat hartu eta hotelera joan zen. Lo-kuluxka bat egin eta gero, herrialdea bisitatzerara joan zen. Bera zegoen lekutik oso urrun zeuden

txiroak, eta berak txiroak ikusi nahi zituen. Oso nekatuta zegoen eta gaua iristen ari zen. Hotelera joan eta ohean sartu zen, eta bere buruari galdera batzuk egiten hasi zen: «Zergatik izan ditut bihozkadak, zergatik Afrikara?». Baina arreta gehiena deitu ziona galdera hau izan zen: «Zer intensiorekin etorri naiz?». Pentsatzen jarri eta burutapen bat izan zuen, pentsatzen zuen agian bertan aurkituko zuela bere alaba maitea. Hurrengo goizean bere indar guztiekin jaiki zen.

Seguru zegoen bihozkadak zera esan nahi zuela: Afrikan bere alabaren arrastoren bat aurkituko zuela. Bilaketarekin hasi zen goizean goiz. Arazo bat zeukan ordea, ez zekien zein puntutatik hasi. Egunerokoa baliagarria egingo zitzaioela bidaiaren zehar pentsatu zuen. Baita asmatu ere. Egunerokoa bilaketarekin lagunduz zion. Lehenengo pausoa gehiena irakurtzea zela irudituz zitzaien. Halako batean, mapa bat ikusi zuen. Berriz ere, bihozkada, baina hau benetan sakona izan zen. Bihozkadek gauza onen bat esan nahi zutela iruditzen zitzaien. Okerrena maparen egoera izan zen; denbora askoan ku-

txan zegoenez, tinta asko joan zitzaien. Baina gizonak ez zuen etsi. Kosta zitzaien, baina azkenean lortu zuen letren esanahia ateratzea.

Behar zituen gauzak hartu, (janaria, arropa, ura, eta dudarik gabe, egunerokoa) eta abiatu egin zen. Horretarako barku bat behar izan zuen. Dirua gastatu beharra izan zuen aurrera segitzeko. Jende askoren zurrumurruak entzun zituen; batetik, bera pasa behar zuen ibai handia madarikatuta zegoela; bestetik, bera bakarrik joaten erotuta zegoela ... Baina berari bost axola.

Bihozkada asko jasaten zebilen, guztiak oso onak. Pozten eta esperantzak pizten hasi zitzaizkion. Eta ez, ez zen azkarregi. Han urrutian, herrixka bat ikusi zuen. Egunerokoa begiratu eta hango maparen berdin-berdina zen. Bihozkadak sarriagotu egin zitzaizkion. Herrixkara iritsi eta bere alabaren argazkiak atera zituen erakusteko. Baina halako batean dena txiroez eta uue gaxoex beteta ikusi zuen. Pena handia sentitu zuen. Motxilako gauzak atera eta beraie ematen hasi zen. Amon zahar bat hurbildu zitzaion, eskuakin gosearen kei-



nuak eginez. Amonak argazkia ikusi, eta beste keinu batekin ezker alderantz seinlatu zuen. Gizona korrika joan zen, eta neska eder bat ikusi zuen zuhaitzean ehiza egiten hango herriarantz. Garrasi egin zuen, neskak bera begiratu eta begietara begiratu zion. Korrika batean jaitsi zen besarkada bat ematera. Aitaren bihozkadak etengabeak bilakatu ziren.

Ingurura begiratu eta herrixka guztia beraien begira zegoen txaloka. Pozez zoratzen zeuden. Irribarre bat egin eta oso ondo ulertu ziren, han gelditzeko erabakia hartu zuten, herrixkari laguntzen. Gizonak bere desioa egi bilakatu zuen, bere alaba aurkitzea. Dena bihozkadengatik izan zen eta buruari jaramon egin beharrean bihozkatari egitegatik.

Imanol Arregi Rodriguez • 3. saria

‘Zuhaitz misterioitsua’

Duela 8 urte bazen Jon izeneko haur bihurri bat, bere amarekin bizi zena. Jonek lagun asko zeuzkan eta denak ziren bera bezain bihurriak.

Egun batean Jonek ez zituen lagunak aurkitzen, eta honela pentsatu zuen bere artean:

-Lagunekin ezin baditut bihurrikeriak egin bakarrik egingo ditut.

Honela abiatu zen plazatik paseatzen eta azkenean bururatu zitzaion zein bihurrikeri egin: Plazako landaretxoa puskatzea. Esan eta egin, plazako landarea apurtu zuen.

Hondatu zuenean, eskuetan zeukan landarea hazten hasi zen eta Jon aho bete hortz gelditu zen. Landarea herriko eliza baino askoz ere handiagoa egin zen eta herri osoa ia guztiz itzalpean gelditu zen.

Herriko biztanleek bilera bat antolatu zuten arazo horren inguruan hitz egiteko. Herriko alkatea, polizia burua... Beno hobeto esanda herri guztia elkartu zen bileran.

Bertan erabaki hau hartu zuten eztabaida askoren ondoren: Zuhaitza moztu egin beharko zutela. Esan eta egin. Eta denak joan ziren beraien mozteko lanabesekin. Saiatu, saiatu ziren, baina ezin zuten zuhaitza moztu, gero pentsatu zuten adarrak mozte, baina hauek enborra bezain gogorrak ziren.

Hurrengo egunean belar txarrrak kentzeko pozoia bota zioten, baina zuhaitzak sendo jarraitu zuen.

Egun batzuetara herri hura gau bihurtu zen, zuhaitzak hosto-tarteko bere zirrikitu guztiak estali zituelako.

Handik bi hilabetetara polizia burua kezkatu egin zen eta esan zien bileran parte hartu zuten herriar guztiari:

-Nolatan hazi da hainbeste plazako landarea?

Honela erantzun zion batek:

-Nik ez dakit, baina agian etxetz egin galdetzen baduzu informazio gehiago lortuko duzu.

Eta honela abiatu zen polizia burua etxetz egin galdetzera. Azkenean Jonen etxera heldu zen eta honek aitortu zuen berak puskatu zuela plazako landaretxoa. Jonek egindakoa aitortu zuenean zuhaitzak bere zirrikituak zabaldu zituen.

Orduan polizia buruak pentsatu zuen: «Aitorpena entzun ondoren txikitu bada, agian ondo tratatuz gero txikitzen jarraituko du

eta lehen zen bezalakoa izatea lortuko dugu».

Eta polizia buruak berriro joan zen etxetz bere burutazioa zabaldezera. Azkenean denak abiatu ziren zuhaitza urreztatzea eta ur zorrotada bakoitzeko adar bat jausten zen lurrera.

Handik bost egunetara landarea bere onera etorri zen, eta herri guztia poztu eta algaraka hasi zen.

Eta Jonek esan zien bere lagunei:

-Nik behintzat ez dut horrelako bihurrikeria gehiago egingo bestela horrelako beste okerren bat gertatuko da eta.

Eta harrez gero herri hartako haurrek ez zuten ingurugiroaren aurkako bihurrikeria gehiago egin.



Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila: Olerkia

Ainhoa Gibelalde Eraso • 1. saria

‘Tristura eta alaitasuna’

Begietatik ura dario
bihotza taupadaka dut
eskuak urdurian,
eta hankak dardarka ditut.

Zu ikusten zaitudan guztietan
negar malkoak ateratzen zaizkit
nire begi disdiratsu eta bustietatik
pena ateratzen zait bihotzetik.

Tristura badoa eta alaitasuna dator
nire bihotza argitu da zure ahotsa entzutean
begiak lehortu zaizkit berriro zu ikustean
orain konfiantza dut zuregan.
Zurekin batera egoten naizenean
nire aurpegia poztu egiten da
eta munduko pertsonarik alaiena
sentitzen naiz zu nire ondoan egonda.

Nire hitz goxoak zuretzat ditut
zu baitzara mundu honetako erregea
eta nik zugar konfiantza handia baitut
pentsatzen dudalako zu zarena nire legea.

Orain, biak batera gaude
gure bizia ez da inoiz aldatuko
horrela jarraituko dugu beti eta
inoiz ez zaitut baztertuko.

**Lorena Agirre Urbizu** • 2. saria

‘Zure bihotza’

Gaua iluna da,
eguna, berriz, argia
eta zure bihotza...
maitasun kantua.

Zure begiak ederrak,
zure maitasuna hoberena,
baina zure bihotza...
handia eta harrigarria.

Izar usok bereziak,
lainoak tristeak.

Negarrez zaudenean
nire bihotza atsekabea.

Zure loreak usaintsuak
nire zuhaitz ikusezina
baina zure bihotza...
nire barruko aitxorra.

Nire ilea latza,
zure ilea luzea,
baina zure bihotza...
guztia baino hobe.

Maite zaitut bihotza,
zatoz nirekin zerura
eta orain, berriz,
nire bihotz galdura.

Bihotza, bihotza
sentimenduez beteta,
maite zaitut zaren bezalakoa.
Agur betirako bihotz maitea,
zeruan nago zure zain.

Agur, agur bihotz,
handi eta harrigarria,
zu egongo zara,
nire buru maitagarrian

Ni hilda nago,
arima, berriz ez,
lasai egon,
ikusiko zaitut eta!



Itsaso Oreja Mitxelena • 3. saria

‘Gogoratzen naiz’

Ene lagun maite
olerki hau eskaini nahi dizut zuri
niri zuri bezalaxe
masailak jarriko zaizkit gorri-gorri
gogoratzen naiz
zure inguruan nola egiten nuen korri
eta gogoratzen naiz
erortzen nintzenean nola begiratzen ginen elkarri.

Betidanik zu eta ni
izan gara elkarrentzako txintzarri
zu eta ni lagun izatea nahiko nuke
beti betiko lokarri
gogoratzen naiz
momentu hartan zu zinela nire pozgarri
eta gogoratzen naiz
zurekin ametsetan pasatzen nuela zoragarri.

Ene urruneko lagun maite
zoritxarrak guri distantzian gaitu jarri
une gogorak
eta goibelaldiak sarri
itxaropena ez dut galdu
bilatuko zaitut herriz herri
zu zara nire betiko
Bixkor txakur maitagarri.



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila: Hizlaria

Iñigo Puerta Uranga • 1. saria

‘Bidaia bat iraganean zehar’

Errenazimenduko Italia... Pentsatu al duzu inoiz nolako izango litzatekeen XV. mendeko Italiara, Lonardo da Vinciren garaira, bidaiatzea? Nolako izango litzatekeen garai hartako bizitza? Orduan, ez ezazu beste ezertan pentsatu eta utzi zure pentsamenduei hegan egiten.

Gizona harrizko kaleetan zehar dabil gustura, hara eta hona, oraindik ez baita ordua.

Kalea jendez gainezka dago eta iskin guztietan ikus daiteke pertsonaren bat malabarak egiten edo musika jotzen. Entzun daitekeen bakarra jendearen algarak dira. Iskanbila sekulakoa da, batez ere, kanal batera daraman aldapa batean. Gizonari jakin-mina piztu zaio eta, irribarre bat ahoan, jende artean sartu da ikuskizunaz gozatu nahirik. Zer bait ikustea lortu duenean irria algara bihurtu zaio. Lau bat mutil dabilta, etxeen teilatuetatik nahiz gondolatik zilipurdiak eginez, jendeak botatzen dizkien txanponen bila uretara jauzi egiten. Ezinezkoa da gazteak zeintzuk diren jakitea, maskarak daramatzate, inuruko jende guztiaren antzera.



Gondolak, maskarak eta kanalak. Bai, Venezian gaude, 1486. urtean, gizon ezezagun baten bizipenak jarraitzen, irudimena garraio Veneziaiko inauterietan.

Gizon ezezagunak aurrera jarraitu du. Jendetzaren artetik kalera itzuli da eta, han, maskara denda baterako noranzko hartu du. Berak ez du halakorik eta bat erosteko ordua dela iruditu zaio.

Dendariak gustura asko erakutsi dizkio dendako maskararik dotoreenak. Zein baino zein politagoa, guztiak lirainak baina desberdinak, kolore guztietakoak, material askotarikoak, itxura anitzekoak.

Dendaria oso pozik dirudi.
- Inauteria pozik egoteko garaia da-dio.
- Bai, noski -erantzun bestea.

Horrekin batera, dirurik ez daukala konturatu da gure gizona. Lapurtu egin diote! Ez da guztiz harritu, Venezia azkenaldi honetan lapurrez gainezka dago eta. Burumakur atera da dendatik. Algarak berdin darrai, ozenago esan liteke. Kalean barrena dabil gizona haserrearen eta tristuraren artean, pentsamenduetan, bertatik urrun.

- Petruzzio! - oihukatu du norbaitek

- Petruzzio! - berriro ere.

Gizonak esku bat sentitu du sorbalda gainean, eta bi aldiz pentsatu gabe, itzuli egin da lapur bat harrapatzeko asmotan. Ikusi duen lehen gauza maskara orlegi eder bat izan da. Urrezko izkinak ditu eta masailetan larrosa beltz bana. Azpian irribarre zuri bat, bakarra munduan. Petruzzioaren laguna da, Luigi. Alboetan bi emakume ditu, aurpegia ezkurtuan. Bat Petruzziori gerturatu zaio, musu bat eman eta aurpegia estali dio maskara batekin. Orain bai, prest dago joateko, ordua da jaialdira gerturatzeko.

Petruzzioi eskutik hartu du bere neska eta Rialto zubiaren



rutzatuz San Markos plazara abiatu dira lagun guztiak. Venezia inoiz baino politagoa dirudi, inoiz baino biziagoa, inoiz baino alaiagoa. Itsasoaren usain gazia suzuriaren erre usainarekin nahastena da. Umeak korrika dabilta, helduak dantzan, Venezia festan. Ilargiak ere pozik dirudi bere zilar izpiek ura argituz.

Iritsi dira San Markos basilikaren parera, erlojuaren dorrearen azpira, San Markos kanpandorrearen ondora, *dagoaren* jauregitik gertu. Bertan ikusi du gizonak lapur bat jaialdiko jendearen ostean.

Haserrea pizten hasi zaio, baina ez dio suak hartzeko denborarik eman. Musikak itzali du txinparta.



Lizardiri Tolosan egindako omenaldiaren irudia, eta Aitzol euskaltzaleak biltzen dituenak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. maila: Olerkia



Batez ere, neguko afalondoetan izaten zen euskal aldizkariak irakurtzeko aukera.

Leire Alargunso Maiztegi • 1. saria

‘Itsasoa’

Egun ilunetan itxaropena
galtzen den iturrian
oroitzapen gogor itsuen
kutxa galduen zuloan
amildegi huts baten antzera
itsasoratzen direnetan
bere baitan arimak menpe hartu
dituen aho erraldoiean.

Gau beltzeko argi zuriak
argitu bidea bizitzara,
baina barnean ekaitzak ito
joan bizitza berrira,
familiek negar gelditu ezin,
errekato baten antzera,
erreka suminduak ezin a(ha)ztu
hartu arte bidea zerura.



**Amaia Uranga Perez
• 2. saria**

‘Nire tristura’

Nire tristura,
neguko hodei grisek sortua
laban zorrotzu antzeko batek
nire bihotzean sartua
triste nago,
mendi ilun batean harrapatutik,
presoa izango balitz bezala
ibai zabal eta ilunean
aurkitzen naiz aspaldian.



Ainhoa Mendiluze Ormaetxea • 3. saria

‘Irribarrea’

Misterio handi bat
bada irrifarra,
dastamen ozena eta
entzumen lakarra,
bertakoa bada ere
sarri atzerritarra
beti da magikoa
emea ala arra.

sentsazioa bada,
barearen ostein
baitator ekaitza.

Irribarrea, misterioz betetako zerua.
Irribarrea, atzerritar bertakoa.
Irribarrea, norberaren doinu isila.
Irribarrea, poztasunaren erregina.

Askotan izan ohi da
denon poz-iturri,
gezuraren antzeko
bestetan; nork daki!
Halere gehienetan
asko poztan nau ni,
faltsukeria eta
egiaren oinarri.

Badator eta badoa
olatua bezala,
guk sarri ez dugu nahi
izatea hala,
itsasoaren antzeko



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila: Hizlaura

Larraitz Barrio Goikoetxea • 1. saria

‘Kenya’

1. kapitulua

2004ko apirilaren 5a

Kaixo ama:

Oihu egin nahi dut, oihu mingotsa, zakarra, izutzen duen horietariko, gorrotoz beterik dagoena. Oihu egin nahi dut, bakarrak ala agian biluzik sentitzen naizelako. Ene bihotza biluzik dago, ez du jatekorik nahi, ez du ni entzuterik nahi, ez dit kasurik egiten. Zergatik izango ote. Zergatik izango ote, ama?

Maialen; bera nirekin hemen izango balitz...

2004ko ekainaren 24a

Hegazkinek leho txiki honetatik, elefante, lehoi, zaldi... itxura duten lainoetara begiratu, eta bere esku zuri xume txikia, nire sorbaldatik segurtasunez helzten nauela sentiarazten dut. Maialenen esku zuri hura.

Zerua urdin dago; ez dugu oztoporik. Halaber, ortzemugara begiratu eta arrosa koloreko lerro dasagarri bat ikus daiteke. Zeinen ederra den, ama; ikusiko bazenu...

Lainoz beteriko zerura begiratu, eta nire begiak itsutzen dituen eguzkiaren izpiek aske nagoela sentiarazten naute. Militar, presondegi, zigor, oihu, zauririk gabe. Aske.

Mundu osoa jango banu bezala, eguzki izpiek pixkanaka-pixkanaka handitzen naizela sentiarazten naute; inurrien ondoan, erraldoi bihurtzen denaren antzera.

Baina gure Maialen preso dago. Kenyan dagoen presondegian. Nire txikitako lagun mina. Gezurrik esaten ez duen horietakoa, eta esaten badu, geroztik esan ez dituen horietakoa. Nire lagun mina. Maialen Garmendia. Militar gorenak atxilotu zuen, ogi poltsa bat lapurtzeagatik. Halaber, ez zen berarentzat, hiru eta hamar urte bitarteko umeentzat baizik. Gose eta egarriz hiltzen zeuden umeentzat.

Markel izenekoa mutil bat ezagutu dut. Benetan oso atsegina dena; neska guztiek berarekin ezkontzeko gura izan ohi dutenatarikoa da Markel.

Berak, ez orain modan dagoen arropa, ez familia, ez janari, ez diru, ez ura... guk bizirauteko behar ditugun gauza gehienak behar arren, maitasun ezean egon

arren; beti zegoen alai, bizitzeko grinez, saminez; aurpegi polit horri argi batek arima argizatzen zion heinean.

Laino bitxi hauei begiraten ari natzaie, eta izeba Inaxirekin gogoratzen naiz, ama. Berak txikitari: «Naiara, ea izarrak non kokatzen diren, eta beraien izenak ikasten dituzun esaten zidan, ustetsu eta bere irrifar gozo eta lasaiarekin, zure mutil lagunarekin

bizitzan jakingo duzu. Orduan, izeba Inaxirekin gogoratuko zara».

Nahiz eta bere istorioa entzun, ez dut oraindik inoiz nire 22 urtetan osaba bezalako gizon bat aurkitu. Faltan botatzen dut, gure izeko Inaxi, eta faltan botatzen dut hango ohiturak, zeure patata tortilaren zapore gozo eta samurra, Idiazabaleko gazta eta nire Julen. Nire Julen.

rekin batera. Zer dago han hemen ez dagoena? Izan ere, ez nuen hara joateko gura handirik. Erroma, Italia, Ingalaterra... eta horrelako lekuetara joan nahi nuen. Geografia kontuetan aditua ez izan arren, banekien Italia eta Kenyaren arteko desberdintasunak handiak zirela, eta berdintasunak urriak.

Atención a todos los pasajeros, hemos llegado a Bilbao.



hondartzara joaten zarenerako, txunditurik utziko duzu Naiara, osabak neu txunditu ninduen bezala. Osaba Eugenio eta biok larunbat gauero, Uzturre mendira joaten ginen; badakizu Uzturre mendia Tolosan dagoela. Tira bada, larunbatero joaten ginen, udako egunetan, noski. Berak gerriatik heldu eta lore usaintsuz beteriko zelai batera, goxotasunez eraman ninduen. Laino baten gainean egongo banintz bezala sentiarazten ninduen. Badakizu nolalako zen izeko Inaxi, beti hain natural eta maitekor. Gaueko 9ak aldera, zerua erdi ilun zegoenean, osabak zeru guztiko izarrik distiratsuenak ere, ni ez ninduela gainditzen esaten ohi zidan. Nire urteak betetzen dituzunean, maitasunak zer garrantzi duen geure

2. kapitulua

Naiara dut izena, psikologiako fakultatean ikasketak amaitzear nago, eta 22 urte ditut. Aurtengo kurtsua azkenekoa izango da; jadanik 4 urte daramatzat ikasten eta.

Hiru urte nituela, aita istripu batean galdu genuen. Oihane; hamasei urte dituen nerabea, nire ahizpa txikia; ama eta biok goitik, gailurretik zaintzen egongo baltitz bezala sentitzen dut aita. Baltitz bezala? Ez, bene-benetan babetzen gaitu.

4. mailan gaudenoi, Erasmus-en bidez Kenyara joatea egokitu zaigu. Lehenengo zirrara ea zergatik Kenyara izan zen. Zergatik? Betidanik izan da eskolan egiten genituen lanetako gai bat, Afrika-

Ene bada, bazen garaia. Begiak estu itxi nituen hau entzuterakoa, ez bainuen sinesten jadanik Euskal Herriko lurra zapalduko genuenik. Kenyatik bueltatzen ari ginen.

Herri-mina sentitu arren, izugarrizko nostalgia bizkar gainean eramaten nuen zamaz. Kenyan ezagutu eta ikasitako gauza guztiekien, pertsona hobea izaten ikasi nuen.

Egunerokoan idatzi dudanari buruz hausnarketaxo bat egiteari utzi, maleta hartu eta unibertstatetako lagunekin batera, aireportuan zegoen Irizar hiri-autobusera igo eta etxerantz abiatu ginen. Denen zozo aurpegiak ikustekoak ziren; hiri-autobuseko guztiok 5-9 bitarteko kilo galerak jasan genituen. Halaber, Kenyako biztan-

leek zer-nolako gose eta ur faltak duten ikusi eta gero, Jainkoari eskerrak eman behar genizkiola sentiarazten genuen egunero. Ez gara konturatzen zer-nolako zortea eduki dugun. Ez gara konturatzen behar adina daukagula; ez gara konturatzen beti eskatzen ari garela.

Jadanik Tolosa herriko sarrean geunden; zer-nolako paisaia berde eta garbiak; txori alaien txioak, arima dantzan jartzen duten horietakoak. Herri-min hori di-da batean desagertu zen nire barnetik. Egun luze horien morroi izan nintzen, ginen, geunden, nengoen; baina goiz aldean eguzkiak lo aurpegia esnatzen duen bezala, Tolosa herriko lurra eskuineko hankaz zapaldu genuenean, arima esnatu zela nabaritu genuen.

Eta hantxe zegoen nire ama, bi esku zimur eta leun horiek zabalzabalik, nire gorputz osoa ferekatzeko gurarekin. Maletari garrantzia kendu eta zuzenean amarengana joan nintzen asko ta salto ta korrika, *tortolika-tortolika, mantxo ibiltzen ere badaki, txingozoki txingozoki* haur abestia buruan nuela.

Eta ez esan inoiz ez zaizula negarra atera irria beharrean; eta ez esan sekula inoiz malko likatsu bat zure masail lurrunetik igaro, beldurra edukiko balu bezala, norbaiten esperoan, bakarrak, ezpainetan beraren bide laburra bukatu arte. Hainbeste denbora luzean maite duzun pertsona bat berriz ere ikustean, negar alai bat barne-barnetik ateratzen dela esaten dute helduek.

Benetan diotsut: Txibizkeria diet bizitzari etekina atera dietenei; bizitza gozatu, profidatu dutenei. Amonak halaxe esan ohi zidan: «Ez da aholkulari ona bekaizkeria! Zeinen ona den baikoitza bere arimarekin gustura egotea, eta zeinen ona den bizitza gozatzea».

Miresten dut, nire amona. Amaren beso garden eta kolorezkoengatik areagotu eta benetan, maitasun kutsu bat behar nuela konturatu nintzen. Maleta hartu, eta amak zein argal nengoen esaten zidan bitartean, etxerako bidean abiatu ginen.

(XIII. orritik dator)

Goiz hartan pentsakor jarri eta txikitzen aitona Joxek esaten zion-ua ulertzen hasi zen: Bizitzia puzzle baten antzekoa zela esaten zuten Joxek. Puzzle bati piezak falta bazaizkio ez zen puzzle hori guztiz osatzen, bizitzarekin berdina gertatzen omen zen. Zure bizitzan garrantzitsuak ziren pertsona edo gauzak galtzen bazenituen, ez zinen guztiz osatuta sentitzen. Zure bizitzan zerbait falta balitz bezala sentitzen zinen, zure bizitzako helburu edota ametsak gauzatzeko gai ez ziren. Txikitzen, normala denez, Mikelek ez zuen ezer ulertu eta aitona baten hitz arraroak besterik ez zirela pentsatu zuen. Orain bai, ulertzen zuen. Kartzelan zegoen eta bere barne puzzlearen pieza asko galdu zituen bidean. Honek denak ezinezona sortzen zuen Mikelengan, baina egunak aurrera zihoazela ez zuen puzzlea gerotzeko eta osatuagoa ikusten, kontrakoak baizik.

Eguna luze egin zitzaion Mikele, bere pentsamenduetan murgildurik jarraitu zuen egun osoan, berriz gaua heldu eta ametsen artean loak hartu arte...

Berriz ere Kataline... Inoiz baino ederrago ikusi zuen, begien kolorearekin bat egiten zuen soineko urdin luze bat zeraman jantzita. Paseoan ibili ondoren portutik gertu zegoen mendixka batera igo eta banku batean eseri eta itsasoari begira zeuden...

III. kapitulua

Egunerokotasuna. Betiko moduan, goiz erdian preso guztiak kartzelako patiora ateratu ziren airea hartzera. Dagoeneko Mikel saskibaloitza taldean sartuta zegoen eta ia goizero ordutxo bat jokatzeko ibiltzen ziren. Asko harritu zuen, goiz hartan beste presoak ikustean. Batzuek beste egunetan baino aurpegi hobetoagoak zituzten, inoiz baino kontentuago egongo balira bezala. Berehala ulertu zuen zergatik, bisita eguna zen. Banan-banan jendea deitzen joaten ziren. Mikelek ez zuen egun hartara arte bisitarik jaso eta gaurkoan esperantzaz egon zen goiz guztian. Baina minutuak aurrera zihoazela ikusten zuen eta guardiek emakume haren bisita, eguneko azken bisita zela jakinaraztean, triste eta inoiz baino bakartiago sentitu zuen.

Bazkaltzeko garaian, kalabaza purea eta ogi zati txiki bat jan eta ziegara bueltatu behar izan zuen. Arratsalde luze hura pentsakor pasa zuen, kanpoan euri hotsa entzuten zuen bitartean. Ia tarteko zuloak ez zuten barrotean ondoren jarri zuen eta urrutian eguzkiak eta euriak sortutako ostadarrari begira geratu zen. Txikitzen aitarekin baserriko zelaian hura ikustera esertzen zirela gogoratu zuen eta negar malko bat erori zitzaion. Ez zen negar malko baka-

rra izan, ondoren sekulako negarrik bota baitzituen. Impotentzia sentitzen zuen, askatasuna behar zuen, egunero ardiak zaintzera joatean sentitzen zuen askatasuna berriz ere sentitu, aitari musu bat eman behar zion eta nahiz eta aitak ezin hitz egin, begietan ikusten zitzaion semearenganako sentimendu hori sentitu.

Aitaz oroitzean, bere bizitzaz pentsatzen hasi zen. Bere haurtzaroa zein zaila izan zen pentsatu zuen gurasoak hil baitzitzaizkion, ondoren beragatik borrokatu zuen guztia, eta azkenik jasaten zuen gaixotasun hura...

Bere aitaz harro sentitu zen eta berak emango zion indar hori sentituz, zerbait egin behar zuela pentsatu zuen. Kartzela zikin hartatik alde egiteko ordua zen.

IV. kapitulua

Bitartean Altzon, Kataline Anttonenkin bizitzera joan zen, honek 24 orduko atentzioa behar zuelako. Anttonen gaixotasuna gerotzeko eta okerrago zihoan. Gerotzeko eta mugimendu txikiagoak egin zitzaizkion, dagoeneko ez zuen hitzik egiten, egunetik egunera ahulago zeto-



goen... Kataline asko laguntzen zion, ia minutu guztiak pasatzen zituen bere ondoan, Anttonen hainbeste falta zuen maitasun hori jaso zezan, Anttonen puzzleak ere pieza asko falta baitzituen.

Egunero, Anttonen lo hartu eta gero, Kataline kanpoko zelaian etzan eta izarrei begira egoten zen, bertan bere galdera guztiei erantzum bat aurkituko zien esperantzarekin. 3 aste luze ziren Mikelen berririk eduki gabe eta bere hutsunea gerotzeko eta estuago sentitzen zuen.

Goizero Goikotxera etorri eta irribarre eginarazten zion mutila galdu zuen, egunero Benito Lertxundiren abesti eder hori abestuz zion mutila.

Non ote zegoen?

V. kapitulua

Altzotik milaka kilometrotara zegoen Mikel. Beste egun berri bat hasi zen eta inoiz baino indartsuago esnatu zen. Ziegaren markatzen zituen murrak ikusi eta dagoeneko bertan hilabete luze bat igaro zuela ohartu zuen.

Patioan askotan entzun ohi zuen sukaldearen atzeko aldeko paretan zulo txiki bat eginda zegoela eta hori ikusi nahian egun asko pasa zituen. Uste baino zailagoa egin zitzaion, aste luzeetako arratsalde asko pasa zituen ihesaldia prestatzen, baina tarteka olerki motz batzuk ere idazten zituen:

Kartzelan preso nago.
Zirkuko lehoi bat ematen dut bere kaiolan sartuta, atera nahi eta ezinean.
Kartzelan preso nago.
Lau paretak beltzen artean iluntasuna da nabari, bakarrik nago, amildurik.
Kartzelan preso nago.
Bakarrik sentitu arren, badakit nire herrian, lagun eta jende asko ditudala itxaropenez nire esperoan.
Kartzelan preso nago.
Olerki hau idazten, malko

gelara, hasieran ez zuen inor ikusi eta mundua gainera erori zitzaion. Baina bat-batean, sarrerako atera begiratu eta aitaren gupildun aulkitik tiraka Kataline ikusi zuen beti bezain polit. Irribarre bat bota zion ikusi bezain laster, bere begiek berriz ere itsutu zuten Mikel. Honen begirada beheantzer jo eta aita inoiz baino zurbilago ikusi zuen. Aurpegiko azal kolorea asko zuritu zitzaion, zimur ugari ateratu zitzaizkion, baina bere begirada beti bezain sentikorra zegoen. Aita-semeek minutu luze bat pasa zuten bata besteari begira, bien buruetatik bizitzan zehar igarotako momentu guztiak pasa ziren, begietatik negar malkoak erortzen zitzaizkien bitartean. Mikelek esku bat finkatu zuen kristalean, bere gustuko neskez eta aitaz banatzen zuen kristalean. Inoren erantzunik jaso ez zuela ikusi zuen, baina orduantxe Katalinek Anttonen beso hartu eta hau luzatzen Mikele esku parean jarri zuen bere aitarena. Ondoren, Katalinek bertan zegoen telefonoa hartu eta biek lotzen duten abestiaren zati bat abestu dio: «Susmoa daukat gure patua itsasoa ez ote da, libre eta zabal dugu aurrean baina ezin dugu edan».

Mikelek honela erantzun zion: «Ispilu hartan ikus gaitezen herri herri auzoz auzo, zauriak gaitzez itxi ditzagun malkoak gure sera son, sano ta libre irla txiki bat salbatuko gara akaso».

Horrela bukatu zen bisita, guardia bateak bisita denbora bukatu zela esatean. Hirurak negar malkotan agurtu zuten elkar, Mikelek airean musu bana bidali zien eta han joan ziren biak aspalidiko partez Mikel ikusi ondoren.

Mikelek puzzlea osatzen joateko indar eta alaitasun handi bana irabazi zituen egun hartan.

VII. kapitulua

Duela urte bat espetxeratu ninduten, larrosa bati petalo guztiak kentzean bezala arantzez beteta gelditu nintzen.

Ez nuen neure burua ezagutzen inpotentzi eta bakardade hartan sartuta.

Baina poliki-poliki arantzak kendu eta lore berri bat sortu dut, nire puzzlea osatzen segi dut.

Espetxetik azken agurra egiteko eguna heldu da.

Hemen nire izena zikindu dut baina badakit maita nautenek garbituko dutela, nahiz eta hemen bakarrik egon herria zain izango dudala, egindako akats guztiez ikasi eta bizi berri bat hasiko dudala, nire puzzlea osatzeko gai izango naizela.

Azken musu eta besarkada goxo bat hemendik, bizitzan itxaropenez borrokatu dutenei

eta nigan esperantza guztia jarri dutenei.

M.L. 2000-06-08

Hainbeste egunetan prestatutako ihesaldia egiteko eguna zen hura. Goizean betiko moduan patoria ateratu eta inoiz baino urdu-riago ikusi zuten denek, baina badaezpada ez zion inori ezer kontatu. Mikelek urte luze bat kartzelan eman zuenez eta inongo problemarik eman ez zuenez, askatasun pittin bat ematen zituen guardiek, beraz, bazkal orduan ogi zati baten bila joango zela esan zuen. Bihotzak minutuko milaka taupada ematen zizkion, baina beldurrak alde batera utzi eta alde aurretik prestatutako pausu guztiak eman zituen. Bi sukaldariak jo eta lurrean konortetik gabe utzi ondoren, zuloa zegoen paretarantz joan zen. Baina espero ez zuen moduan, momentu hartan bertan, guardia bat sartu zuen sukaldera. Blokeatuta gelditu zen, zer egin ez zekiela, baina berehala erreakzionatu eta korrika irteera beste aukerarik ez zuela pentsatu eta hala egin zuen. Guardia korrika hasi zen zulo-arrantz bere lankideei oihukatzen zien bitartean, baina Mikel bera baino azkarragoa izan zen eta zulo-rik irteera lortu zuen. Kanpoan txakur talde bat zegoen bere esperoan. Orduan Mikelek urte guzti horretan zehar gordetako pistola ateratu eta txakur guztiak akabatu ondoren, hesirantz hurbildu eta ahal zuen moduan zulo bat egin zuen. Irteerari zela, 5 guardia inguratu zitzaizkion *Pare, o desaparare* esanez. Baina Mikelek beste irtenbiderik ikusten ez zuenez, aurrera jarraitzea erabaki zuen eta azkenik kanpoko zelaira irten bezain laster, tiro hotsak entzuten hasi zen. Atzera begiratu gabe, korrika batean segi zuen, bere bizitzako sprint luzeana izan zen. Kartzelatik gerotzeko eta urrutia zegoen, baina oraindik guardien tiroak jasotzen ari zen eta haietako batek besoan jo zuen, baina urrutian zegoen basoraino iristea jarri zuen helburutzat, eta hori lortu arte korrika jarraitu zuen.

Hilabete asko pasa zituen noraezean, oraindik ere bere bila egongo zirela suposatuz zuenez, basoko zuhaitzen adarrak eta lurreko hariak erabiliz, ahal zuen moduan laban moduko bat egin eta bizira eta ilea moztu zituen. Herri txikitako iturrietatik ura edan eta ahal zuena jaten zuen, zuhaitzetako fruituak, belarra...

VIII. kapitulua

Hilabete asko pasa zituen noraezean, oraindik ere bere bila egongo zirela suposatuz zuenez, basoko zuhaitzen adarrak eta lurreko hariak erabiliz, ahal zuen moduan laban moduko bat egin eta bizira eta ilea moztu zituen. Herri txikitako iturrietatik ura edan eta ahal zuena jaten zuen, zuhaitzetako fruituak, belarra...

(XV. orrian jarraitzen du)

(XIV. orritik dator)

Herri txiki askotatik pasa ondoren, ezagun egin zitzaion mendixka batetara iritsi zen eta bertako kartela irakurtzean, Larraitzen zegoela ohartu zen. Txikitari aitarekin Txindokira etorri ondoren salda beroa hartzen zuten tabernaren aurrean zegoen. Bere tripan zirraratu sentitu zuen eta aspaldiko partez alaitasun eta askatasun hori sentitu zuen. Jada ez zuen noraez ibili beharrik, bertatik Altzorako bidea ederki ikasia zuen, dagoeneko aitarekin hainbat aldiz egin baitzuen koitzez.

Pentsatu bezala egin eta azkenean iritsi zen bere herrira. Berriz ere esku pilotan jokatzen zuten

frontoitik, umetan orduak eta orduak jolasean emandako parke-rik eta bere txikitako ikastola ondotik pasa zen, sentitzen zuen zirrarak ezinezona sortzen zion bitartean, bere puzzlea osatzen zihoala sentitzen zuen.

Goikotxe baserrira iristean eta inor ez zegoela ikustean, korrika eta presaka herritik buelta bat ematera joan zen. Herriko plazan, elkartean, tabernan, gaztete inguruan... Leku guztietatik pasa zen eta herritar guztiek musu eta besarkada goxoak ematen zizkieten, baina Mikelen harridurarako inork ez zion irribarrerik egiten eta giroa ez zen espero zuen bezain polita, zerbait gertatu zela pentsatzen hasia zen, baina inork ezer esaten ez zionez, herrian ze-

har korrika segitzen zuen. Auto parkinetik pasa ondoren, Zuaznabar baserritik pasa zen, ondoren kanposantutik... Baina bertatik pasatzean, emakume baten negarrrak entzun eta barrura sartzea erabaki zuen.

Mundua gainera erori zitzaioela sentitu zuen beltzetx jantzitako emakume hark buelta eman eta Kataline zela ikustean. Hainbeste negar egitearen ondorioz, erdi itota zegoen eta ezin zuen hitzik ere egin, hala ere hitzak soberan egon ziren. Mikelek hilarria begiratu eta: *Aniton Leturia 1935/04/09-2000/11/15, ez zaitugu sekula ahaztuko*, irakurri zuen.

Puzzlea guztiz haustear egon zen, baina Katalinek besarkada luze bat ematean ez zen guztiz

hautsi. Orduan aitaz gogoratu eta beraz harro sentitzen zela konturatu eta puzzlea pixkana osatu zen berriz ere.

IX. kapitula

Getariko portutik pasioan zihoezen Kataline eta Mikel. Bitartean azken hilabete luze hauetan pasatako guztia gogoratu zuen, espe-txea, ihesaldiak, hilabeteak oinez, aitaren heriotza...

Paseoa bukatu eta portutik gertu zegoen banku batean eseri ziren biak. Mikelek besoa luzatu eta preso hartu zuen Kataline, haizeak eramango ote zuen beldur balitz bezala. Musu luze baten ondoren biak itsasoari begira daudela geratu dira, Benito Ler-



txundiren abestiari amaiera emanez: *Azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira, azken arnasa ematen dugu eguzkitik eguzkira, azken arnasa eman nahi nuke itsasoari begira, azken arnasa eman nahi nuke...*

Mireia Vicente Pagola • 3. saria**‘Hitzetatik ihesi’****I. kapitula**

Hanketako hatzak libre utziz, eskuineko eskuak zapatak eusten ditu eta itsasoko usaina nire gorputzeko atal eta zoko guztietatik sakabanatzen da, nire gorputzaren jabe bihurtuz. Lehen pausoak eman ditut, txiki- txikiak, hilabeteetan ibili gabe egon banintz bezala eta gogoan dudan usain batek gidatzen nau, aspaldian egiten zuen antzera.

Maiatzeko arratsalde baten zazpietarako hondartza harearen freskotasuna nire zainetan gora dabil eta sinetsi ezinik nago berriz ere sentsazio hau sentitu izana. Nire ondoan, Urkoren irudia lainotzen ditu nire begiak eta bitartean, album bat irekitzen da nire munduan nire bildumak argazkiekin, oroitzapenekin eta batez ere Matilderen irribarreak betetzen du hau. Hainbestetan gozatutako irribarre horrek, orain indarra ematen dit, aurrera jarraitzeko indarra.

Esan beharra dut, Matilde bizitza markatu didan pertsona izan dela eta naizen guztia berari zor diodala.

Matilde ni baino bi urte helduago da eta Down sindromea du eta zoriontsu bizi izan da. Orain aldiz, mediku eta traste pila baten artean jarri dute, sindromeak eraginda bihotzeko patologia bat izan duelako, oso ohikoa dena sindrome honen barruan, baina arriskutsua da benetan eta oso larri eta kezkatuta ibili gara azken hilabete hauetan.

-Narrea! Narrea! -Urkoren deidarra entzun dut, laino batetik jaisten egongo banintz bezala.

-Ez al didazu entzun? Ea abiatuko garen malekoira arte?

Buruarekin baietza egin diot, nire eskua estutuz aurrera jarraitzeko keinua egin dit.

II. kapitula

Matildek eta ni neuk, Naroak, hondartza bazter batean egin genuen topo lehen aldiz, ni 7 urte nituela, aspaldi izan zela esan dezakegu, 18 urte bete ditudala kontuan hartuz. Nik sentsazio berezi bat antzeman nuen bere aurpegian, gorputzean, sentsazio hark samurtasuna ematen zidan eta honek bultzatuta lehengo hitzak eskaini nizkion, gero solasaldiak eta hilabete batzuk barru, laguntza ere eskaini nion. Gure artean hari asko lotu ziren eta elkarrekin igarotako minutuak ahalik eta hobekien aprobetxatutakoak ziren. Bere ondoan hazi nintzen eta



heldu bihurtu naiz, baina inoiz ez dut lortuko haren heldutasunik, ezta bere bihotzik ere.

Ezagutzeko aukera izango bazenute... ez da inor munduari buruz horrelako ikuspeirik duenik. Hondartzan pasatzen genituen ordu asko, eta hementxe biltzen genituen gure oroitzapenak. Orain gogora dezaket, ume bat negarrez ikustean muxu bat ematen ziola, eta nahiz eta umeak gaizki edo aurpegi arraroz begiratu, Matildek irribarre egiten zuen beti. Eta horrela zen zoriontsu, besteei irribarreak oparitzen.

Matilde baxua da, ez asko, ni baino zentimetro gutxi batzuk baxuagoa, betaurrekoduna eta ile horixka du. Bere aurpegian

hazpegi nabariak, pertsona desberdina egiten dute, pertsona zintzoa eta alaia.

III. kapitula

Orain dela lau hilabete, Matilderi hainbestetan egiten dioten frogetako batean bihotzetako balbula bateko arazo bat diagnostikatu zioten, berak ez zuen ezer aitortu izan nahi, izugarriko mina sentitzen zuela batzuetan, bere gorputza azkarrago nekutzen zela... Irribarra soilik zegoen margotuta bere aurpegi gozoan. Orduz geroztik okertzen joan zen dena, medikuek geroz eta froga gehiago egiten zizkieten, egunero medi-

bat egitea, bere itxura ahulak sortutako tristurarengatik. Baina Matilde han zegoen bere irribarrearekin, eta edozein pasata ere, munduaren ikuspegi optimista ez du galtzen.

Hala ere, beldur da, medikuntza munduaren beldur, bere ingurukoekin ez egotearen beldur, bakardadearen beldur... eta batez ere, heriotzaren beldur, nik ondo ezagutzen baitut. Baina ez naiz harritzen halako beldurra izatea barruan, oraintxe bertan, bere amaren dei baten zain nago, ebaketa bat egitera behartu dute medikuek eta hemendik irteteko probabilitateak oso eskasak dira. Nolanahi ere, nire esperantzak piztuta daude eta bere ingurukoena ere bai.

Gaur goizean, Tolosaraino gerturatu naiz Izaskungo elizan kandelatza bat pizteko, gustuko zuen eta eliza txiki hori. Eta orain Donostiako Zurriola hondartzan nago itsasora bere argazki bat jaurtitzeko, bai, ez da oso ohikoa baina sinbolikoki badu zentzua. Matildek, itsasoa maitatzen zuen, eta bere hitzetan: «Itsasoko uretan dagoena, salbu dago lurrean gerta daitekeen katastrofe guztien-gandik, hodeiekin egotea bezala».

Azteratu izuliko gara, lau hilabete hauek ikasketetan oinarritu dira, ez naiz parrandan atera, ez ditut erostekak ere egin, nire gurusoaren etxean minimoa egiten saiatu naiz, pentsatuz nire burua hobeto kontrolatuko nuela, baina ideia hau laster desagertu da nire burutik, ez du etekin onik atera. Beno, egia esan, badu alde on bat, kazetaritza ikasketak arrakastatsu atera ditudala, baina beste alde bati begira, antsietate batean erori nintzen eta zaila egin zait aurrera egitea.

IV. kapitula

Itsasertzera gerturatu naiz, olatuak nire hankak estaltzen dituzte bat-batean eta orain berriz ere bere jaioterrira bueltatzen dira, horrela jarraitzen dute, hilezko-rrak dira, pertsonak ez bezala. Nire bakero zaharkituetako poltsiko batetik, tolestutako argazki koloregabe bat hartu eta nire oin ondoetako uretan utzi dut ihes egin dezan.

-Bai, nor da? -atera da Urkoren ahotik eta gero isilune bati heldu dio -Matilderen ama...

Hori entzun bitartean, nire burua erreazionatzen hasi da, mila gauza pentsatzeko tartea ematen duen segundo horietakoa izan da eta salto batez Urkoren aldamean kokatu naiz. Telefonoaren atzetik entzuten den ahots lausotua iristen da nire belarrietaraino, eta larritasun olatu bat sartu zait gorputzean. Urkok mugikorra hartzeko keinua egin dit, baina ezeko bat adierazi diot, une honetan ezin dut hitzik ere aho-katu eta pentsatu dut hobe izango dela Urkok berria ondo entzutea gero niri ondo azaltzeko.

Telefonoa deia amaitu da, ikara sentitzen dut une horretan, horregatik Urkoren eskuak aurkitu eta besarkada bat eman diot, luze iraungo duen besarkada bat, inoiz amaituko ez dena, olatuak bezala hilezkorra dena. Horrela hitzetatik urrunduko naiz, hitzetatik ihes egingo dut.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. maila: Olerkia

Urki Galarraga Alvarez • 1. saria

‘Musika’

Musika, muxu xamur txiki xume
Tolon-tolon noten hotsa!
Mugarik gabeko arte bukuezina
Pentagramako gerezi biribilak dantzan dabilta
Baina gerezi biribilak atseden hartzen geratu dira
Isiltasuna egarri da
Lapurren gisan isildu da
Baina...
Berriro ere gerezi biribilak dantzan dabilta
Berriro musika dantzan jarri da
Berriro gure artea iritsi da
Eta artearekin batera,
Gure poza, gure nahia, gure desioa
Gure poema!



Irene Arin Subijana • 2. saria

‘Hankaz gora’

Kale kantoian barrena
egunsentiaren bila nabil,
hiri baino gehiago oihan den
inguru honen atzealdean.

Aurrerantz noa
oinutsik putzuz putzu,
eta errepedean
kontraesanek sortutako trafikoarekin
topatu naiz.
Behingoz kolore berdea
itxaropenaren semaforoan.
Aurrerantz jarraitzen dut...

Herdoilduriko zubia igaro dut azkenean.
Milaka aurpegi hurrengo kaleko hormetan,
eta denak, itxurak aginduta,
beldur nahiz tristura keinuak ukatu ezinik.
Buru diruz beteta,
eskuak, berriz, zulatuta...

Duintasunaren zebraidea zeharkatu,
eta itzalpeko kalea da hurrengoa.
Eguzkirik gabe ere, itzalpekoa,
iluna.
Pare bat pertsona nire inguruan,
begiak estalirik, inguruaz lotsatuta.

Tunel antzeko hau amaitu,
eta kea bat-batean.
Kutsadura.

Gezurrek sortutako kutsadura.
Ondoren, argi izpi bat agerian,
zulotxo batetik sartzen delarik.
Zehazki, ate baten sarrailatik.



Off-ean dagoen ahots bat,
ustekabea:
“zoaz beste aldera zugan sinetsiz
gero”.

Zalantzarik gabe, aurrera noa.

Horma batekin aurkitu naiz orain,
bertan, seinale bat:
“Ausardiaren horma, apur nazazu”
Eta... zergatik ez?

Horma apurtuko dut,
errealitatearen horma,
inguru berri bat eraikiz,
mundu aldrebesa eratzuz,
guztiz aldatuz,
180°-ko bira emanaz,
hankaz gora jarritz.

Ondoren, bakoitzak bere horma
apurtuz
egunsentia aurki dezan.

Leire Azkue Liceaga • 3. saria

‘Salbamenari eskutitza’

Tximistaren burrunbak esnatu ninduen
zure ile luzearen mugimenduak
paisai bortitz hura laztantzen zuelarik.

Han nengoen ni, zure begi urdin
haiei begira,
arnas-estuka,
etsipenaren poderioz lurrera nola
erortzen zinen begiratuz.

Nire barnean sufrimenduak
gorputz guztia inbaditzen zuen
eta hantxe nengoen, ezer egin gabe,
zuri begira,
neure oinetara gerturatzin zinen
bitartean...
Begiak itxi nituen,
burua makurtu,
zu gero eta ahulagoa
bihurtzen zinen heinean
niri batere axola ez zaidala iruditzen...
Euria hasi du, eta neure masailatik
barrena doazen malkoak
zure etsipenaren malkoekin elkartu dira;

salbamenaren botika sortuz,
eta astiro-astiro,
biok batera,
guk egin dizkizugun zauri guztiak
josiko ditugu
berriro ere lehen gure
artean genuen lur
distiratsu eta itxaropentsua
lortzeko;
zu lortzeko,
gure lur maitea.



 kutxa

TOLOSAKO  UDALA

Lizartza ◊**120 DANTZARI TXIKIK ALAITU DITUZTE KALEAK**

Lizartzako Otsolar dantza taldeak II. Dantzari Txiki Eguna antolatu zuen larunbatean. Herrira, eskualdeko hainbat dantza talde gonbidatu zituzten, eta guztira 120 haur inguru ibili ziren dantzan Lizartzan. Gerturatu

ziren dantzariak Alegia, Anoeta, Villabona eta Ibarrik joandakoak izan ziren. Kalejira Joxe Mari tabernaren ondotik hasi zen. Bidean bost geldialdi egin zituzten dantzari txikiek, erakustaldiak eskaintzeko. Kalejirari plazan

eman zitzaion amaiera. Ondoren, Otsolarreko gurasoek prestatutako hamaiketako hartu eta dantzan jarraitu zuten. Plazan egin zuten II. Dantzari Txiki Eguna agurtu zuten emanaldi nagusia. HITZA

Leitzako ikasleen sorkuntza lanak saritu dituzte Iruñean

Hezkuntza sailak antolatu duen lehiaketan 1.500 ikasle inguru aurkeztu dira

Erredakzioa Leitza

Joan den ostiralean banatu ziren Nafar Gobernu Hezkuntza sailak antolatutako Euskarazko Lehiaketaren sariak. Saridunen ar-

tean Leitzako ikasleak aurkitzen ziren:

Deklamazio Lehiaketan, Erleta Eskolako 4. mailako *Arkakuso* Taldeak jaso zuen saria.

Bideo grabaketan, Amazabal Institutuko 4. mailako *Plastika* Produksions taldea saritu zuten.

Bertso Paper Lehiaketan, Erleta Eskolako 4. mailako *Xabat Illarregi* ikasleak jaso zuen saria.

Hezkuntza sailak antolatutako lehiaketan guztira Nafarroako 1494 ikaslek hartu zuten parte.

Antolatzaileen esanetan, lehiaketa hauen helburua sorkuntza eta adierazpena sustatzea da, baita talde lana bultzatzea ere.

Saridunek diploma, kopa eta DVD bat jaso zituzten. Diru bonoak ere jaso zituzten.

Sari banaketaren ekitaldia Iruñeko Nafarroako Jauregian egin zen, eta bertan izan ziren Alberto Catalan eta Teresa Aranaz, Nafarroako gobernu ordezkariak. Leitzako ikasleak ere bertan izan ziren.



Saria jaso zuten Leitzako ikasleak. HITZA

Aduna ◊**POLTSIKOKO IRABAZLEAK**

Asvineneak antolatzen duen V. Poltsiko Lehiaketaren finala jokatu zen ostiralean. Epaimahaiaren erabakiaren arabera, irabazleak Hartzaka taldeko kideak izan ziren, *Eguzkilore* lanarekin. Ikusleen saria eskualdean gelditu zen, TIC TAC taldeak irabazi baitzuen. HITZA

Berastegi ◊**ANTZIOLAREN ALDE**

Berastegiko Antziola baserria apirilaren 15ean erre egin zen. Iragan larunbatean, aldi, bertakoen aldeko herri kirol jaialdia antolatu zuten. Ikusleekin batera, eskualdeko kirolari ugari elkartu ziren Berastegin, segan, aizkoran edo gizon proban parte hartzeko asmoz. M.U.



Amets Arzallus eta Sebastian Lizaso bertsolariak, Izaskunen eskaini zuten saioan. M. UGARTEMENDIA

Jai giroa izan da nagusi Izaskunen eta Aldaban

Izaskunen atzo amaitu ziren hiru egunetan luzatutako jaiak; Aldaban Harri Festa ospatu zuten, atzo

M. Ugartemendia

Atzo ez zen umore onik falta izan Izaskunen eta Aldaban, bietan ere ospakizunak izan baitziren nagusi. Izaskunen atzo amaitu ziren hiru egunetan luzatu ziren jaiak, eta Aldaban Harri Festa ospatu zuten.

Izaskunen, iluntzean izan zen erromeriarekin esan zieten agur jaiak. Atzo ekitaldiz betetako eguna izan zuten. Goizean, dianarekin eman zieten hasiera egunari. Ondoren, meza nagusia eta hamaiketako herrikoia ere izan zituztelarik. Jarraian, Sebastian Lizaso eta Amets Arzallus bertsolariak eguneko lehengo bertso saioa eskaini zuten, eta arratsaldean eskaini zuten bigarrena. Bertaratu zirenek umorez betetako bertso saioak entzun ahal izan zituzten, eta bat baino gehiagok entzun behar izan zuten berari zuzendutako bertsoaren bat.

Arratsaldean, herriko dantzariak osatutako Alurr dantza taldeak emanaldia eskaini zuten, eta bertaratu ziren haurrek ere beraien tartea izan zuten, gozokiak banatu baitzituzkieten. Azkenik, esan bezala, erromeriarekin eman zuten amaiera bai egunari eta baita jaiak ere.

Asteburuan ere ez zuten aspertzeko denborarik izan Izaskungo herritarrek. Bertso afaria, zaldi lasterketa, zaldi proba eta sagardo dastatzea izan zituzten, besteak beste. Orain, hurrengo urterara arte itxaron beharko dute, berriz ere, auzoko jaiak gozatzeko.



Larunbatean, zaldi proba egin zuten Izaskunen. A. IMAZ



Aldaban, hamabost lagun bildu ziren hamaiketakoan. I. GARCIA

Harri Festa Aldaban

Aldaban ere jai eguna izan zuten atzo. Bertan, San Antonio eguna ospatu baitzuten, Harri Festa bezala ezagutzen dena. Goizean eta gauean egindako otorduak ospatu zuten aldarbarrek harriaren festa hau. Ahozko tradizioaren arabera, San Antonio eguna ospatu ez zen urte batean, izugarriko harri jasa bota zuten, eta uzta guz-

tia galdutzen. Horregatik, orainez dute hutsik egiten, eta urtero ospatzen dute egun hau.

Alde batetik, goizean meza eta hamaiketakoan izan zituzten, egunari hasiera on bat emateko. Hamaiketakoan 15 pertsona inguru elkartu ziren.

Gauean, berriz, Intxurre elkartean bildu ziren Aldaba auzokoak afaltzera.

E. Colia-k eta komeriak



Bioaniztasunetik
Jon Ander Galarraga
Biologoa

Aurreko zutabea irakurri bazenuen, jakingo duzu honekero zer den E. Coli-a, ez bazenuen aurreko zutabea irakurri, jakin ezazu, E. Coli-a Alemaniako osasun krisi berria eragin duen bakterioa dela, azken orduko berrien arabera soja «ekologiko» batetik atera omen da eta bere ibilbidean hildako dezente eragiten ari da gure herrialde «aurreratuetan».

E. Coli bakterio bat da, oso arrunta gure hesteetan, K bitamina sortzen omen du gure gorpuztean, gainera igeri egiteko iletxo moduko batzuk ditu inguru gutxian baita ere isats luze bat, bere bitaminengatik eta itxura xarmagarri honengatik, gaur egun arte oso bakterio maitatua zen.

Baina E. Coli maitagarriak, bakterio guztien antzera, beraien barne ezaugarriak aldatzeko joera handia dute eta orain gutxi, animalia baten hesteetako E. Coli guztietatik bat ezberdina jaio zen eta bitaminak ekoiztu beharrean toxinak ekoizten hasi zen, gaixotasun hilgarri bat sortuz. Ondorengo badakizue, animalia honen gorotza erabili zen barazkien hazkuntzarako eta gizakien hesteetan sartu zen E. Coli «gaiztoa».

E. Coli-a, ia bakterio guztiak bezala, laborategian hazi egin daiteke ikerketarako, hau, lana duten biologoek egiten dute. Bakterioak hazteko bi modu daude, elika-

gaiez betetako salda batean edo elikagaiez betetako gainazal gelatinatsu eta solido batean.

Elikagaien salda hau, haragi edo barazki salda izan ohi da eta gure amek egiten diguten salda guztiek bezala elikagai kopuru ugariak du, hau gutxi balitz, ura, bitaminak eta bakterioa osasuntsu eta ugari hazteko konposatuak ipintzen dira. Behin salda hau eginda, bakterioaren kopuru txiki bat bertara botatzen da, tenperatura egokian ipintzen da eta ordu gutxi barru, bakterioez betetako eta oso usain txarreko ur erre bat edukiko dugu.

Zenbaitetan ordea, interesgarriagoa da biologoentzat, bakterio hauek gelatina solido baten gainean haztea, gainazal gelatinatsu hau algen konposatu batekin egiten da eta ontzi garden eta borobiletan ipintzen da, ziur nahiz azken egun hauetan ikusiko zenituela telebistan, orain badakizu zertarako diren! Gainazal gelatinatsu honetan bakterio kopuru txiki bat zabaltzen badugu, egun gutxira lizun moduko borobiltxoak agertuko dira gainazalean. Lizun hauek, bakterioen multzo handiak dira (bakterioek ere koadrilak osatzen dituzte) eta hauen presentziak adierazten du bakterio hor dagoela. Askotan lizun hauen itxura, kolorea eta abar erabiltzen da zein bakterio den jakiteko inolako mikroskopiorik gabe.

Eta azken bi zutabexko hauekin, espero dugu Tolosaldeko eta Leitzaldeko irakurleek, zerbait gehiago jakitea etorri zaigun osasun krisi honetaz eta telebistan ikusten dituzuen irudiez, HITZA ez baita irakurtzeko soilik... ikasteko ere balio baitu! Eta gehiago ikasteko bioaniztasunetik.blogspot.com, eskariak egiteko bioaniztasunetik@hotmail.com edo Facebook-en.

→ Laburrak

Gipuzkoaren jatorriari buruzko bideo emanaldia

ZIZURKIL › Gipuzkoaren jatorria, historia, mito eta elezaharren inguruko bideo emanaldi bat eta solasaldia izango dira, gaur, Zizurkil. Emanaldia Atxulondo kultur etxean izango da, 19:30ean. Ondoren izango den solasaldiko hizlaria, berriz, Beñi Agirre da. Bideoak *Gipuzkoaren jatorria, historia, mito eta elezaharren artean* izena du. Emanaldia eta solasaldia Zizurkilgo Udalak antolatuta du.

Jai Batzordearen bilera egingo da Anoetan

JIAIAK › Anoetan jaiak aste honetan bertan hasiko dira, eta Jai Batzordeak bilera bat egingo du, gaur, 18:00etan udaletxean, jaiak buruz hitz egiteko. Herritar guztiak bertan parte hartzera deitu dituzte.

Guraso Elkartearen jaialdirako txartelak

ARESO › Larunbat honetan Areso Guraso Elkartearen 25. urteurreneko jaialdia egin behar dute. Bazkarirako txartelak hartzeko epea gaur amaitzen da, hilaren 14an.

Mahala TTTak 3. postua eskuratu du taldeka Sprint Triatloian

Sprint Triatloiko Gipuzkoako Txapelketa izan da; Zarautzen Zalakain, Tejeria eta Agirresarobe bikain

Aitor Elduaian Tolosa

Taldeka podium berri bat lortu du Mahala Tolosaldeko Triatlo Taldeak. Igande goizean Donostian egindako Sprint Triatloiko Gipuzkoako Txapelketan 3. sailkatu zen taldea Aitor Regillaga, Asier Saez eta Alar Sevillanoren puntuei esker.

Sasoiko daude oso uztaila hasierako hitzordu handiari begira, Austriako Iron Man probari begira, eta ondo baino hobeto baliatu zuten ia nahigabeen emaitza garrantzitsu hori lortzeko. Regillagak podium nagusiko hirugarren postua eta Gipuzkoako Txapela eskuan izan zituen baina 8 segundogatik gaintu zuen Egea donostiarrak. Lastima Esti Seguro-laren belauneke lesioa. Proba bertan behera utzi behar izan zuen korrika hasi orduko.



Mahala TTTkoak podiumean, hirugarren postuan. HITZA

25. urteurrenean, Zarautz

Larunbatean, triatloirik mitikoenetako bat jokatu zen, Zarauzkoa, bere 25. urteurrenean. Eskualdeko ordezkariak bikain ibili ziren. Mainer Gaztañagak igeri saio ezin hobean oinarrituta ohorezko postua lortu zuen 8. amaituz.

Gizonezkoetan Egoitz Zalakain, Aimar Agirresarobe eta Aitor Tejeriak, beste urte batez, eta badira batzuk, distantziako elitean daudela erakutsi zuten 14, 16 eta 30. postuetan sailkatuz. Azpimarratzekoak izan ziren lehen bien bizikletako partzialak, 11. eta 16. azkarrenak.

Mahala TTTko ordezkariak, bere aldetik, proba dotorea osatu zuten, Artutxa 'Pirata' buruan (68.). Javi Rodriguezek (89.), Gorka Sarasolak (114.) eta Edu Gonzalez (131.) maila handiko markak egin zituzten, Ion Irazustabarrena bost ordutik jaitsi zen, eta Yon Gonzalezek erakutsi zuen distantziari neurria hartua diola eta prest dagoela Austriako IM-erako. Pablo Urangak eta Aitor Mendiak ezin izan zuten amaitu, baina izango dute beren balioa erakusteko aukera.

Mikel Olaetxea lizartzarrak Eskuz Banakako Bigarren Mailako txapela irabazi du

0-13ko partziala eginda irabazi zuen txapela; bigarren mailako txapela guztiak irabazi ditu lizartzarrak

E. Maiz Lizartza

Merino I.aren aurka partida izugarria jokatu zuen Errioxako Adarraga pilotalekuan lizartzarrak. Partidaren zatirik handie-

nean atzetik joan zen Mikel Olaetxea, baina azken tantoetan buelta ematea lortu zuen. Pilota bizi-giarekin hasi zen finala, eta Merino I.ak errenta handiak hartu zituen. Olaetxeak 9-18ko markagailua aurka zuela, tantorik galduta gabe 22ra iristea lortu zuen lizartzarrak. Azken emaitza, 22-18koa izan zen.

Mikel Olaetxeak lau t'erdiko txapela, binakakoa eta banakakoa lortu ditu denboraldi berean, bigarren mailan. Hurrengo urte-

an lehenengo mailako txapelketan jokatzeko aukera edukiko du.

Bengoetxea zalantzan

Oinatz Bengoetxea da larunbatean Eskuz Banakako finala jokatuko Aimar Olaizolaren aurka. Baina Ives Salaberri, Xalax prentsaurrekoa eman zuen atzo bere eskubideak aldarrikatuz, eta partida berak jokatu nahi duela argituz. Enpresaren erantzuna jakin bitartean, itxaron egin beharko da.

Saralegiri eta Zabaletari txapelak ihes egin die

Bi leitzarrek 15 eta 19 urtez azpiko txapelketako finala jokatu dute Otaño eta Vicenteren aurka

E. Maiz Leizta

Azpeitian jokatu ziren 15 eta 19 urtez azpikoen txapelketak. Bi finala irabazi zituzten leitzarrek, baina ezin izan zuten txapelak eskuratu.

15 urtez azpikoan, Mikel Zabaleta leiztarra, Iker Vicenteren aurka lehiatu zen. Otsagabiakoak uste baino errazago menperatu zuen Zabaleta, eta lan guztiak burutzeko 9 minutu eta 51 segun-

do behar izan zituen. Zabaletak berriz, 11 minutu eta 48 segundoko denbora behar izan zuen.

19 urtez azpikoetan berriz, Eneko Otaño eta Eneko Saralegiren artean jokatu zuten txapela. Kasu honetan, gipuzkoarra gailendu zitzaion naparrari. Lehia estua izan zuten eta beizamarrek, 11 minutu eta 33 segundo behar izan zituen txapela eskuratzeko. Leitzakoak berriz, 11 minutu eta 55 segundotan gelditu zuen denbora. Lehen bi probak, hau da, 45 ontzakoa erlojuz kontra eta abiadura proba, leitzarrek bukatu zituen aurretik. Hirugarren lana 54koa azkarrago nork moztu izan zen eta bukatzeko lau 45 ontzako ebaki behar izan zituzten. Azken bietan Otaño izan zen azkarrena.

Juan Joxe Lizaso asteasuarrak irabazi du Gipuzkoako Segatxapela

Lizasok 3.459 belar kilo ebaki zituen; jarraian, Alkorta, Etxeberria, Arteaga eta Pardo sailkatu dira

E. Maiz

Juan Jose Lizasok irabazi du bigarren urtez Gipuzkoako Segatxapela Oiarzunen. Asteasuarrak 3.459 belar kilo ebaki zituen, eta Mikel Alkorta izan da txapeldunordea, Lizasok baino 246,5 kilo gutxiago ebakita. Hirugarren, Jokin Etxeberria izan da, txapeldunak baino 304,5 kilo gutxiago ebakita. Lizasok bost sail ebaki zituen, eta seigarrenean zortzi maila. Asteasuarrak ebaki zituen azkarren sail guztiak, eta arazorik gabe eutsi zion erritmoari. 2009ko txapelketa irabazi zuen lehen aldiz. Alkorta txapeldunordeak bigarren amaitu zuen sail guztietan. Jokin Etxeberriak osatu du podiuma, eta hobekuntza erakutsi du. Arteaga laugarren sailkatu zen eta eritmo falta nabaritu zitzaion pittin bat. Baliarraindarrak 20 kiloko zigorra jaso zuen. Pardok txapelketa ofizial batean lehen aldiz hartu zuen parte. Gustura amaitu zuen, eta etorkizunari baikor begiratzeko moduan da.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Berreskurazena da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
902 402 900
www.funerariavascongada.com



GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	25°
HOTZENA	17°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria kalea, 46. 943 673274.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Villabona.** Aniztasun Astearen barruan, Hans Christian Andersen-en *Pizgailu Magikoa* ipuina entzun ahal izango da euskaraz eta arabieraz gaur, 18:00etan Aljibean.
- **Zizurkil.** *Gipuzkoaren jatorria: historia, mitoa eta elezaharren artean* bideo emanaldia eta solasaldia gaur, 19:30etik aurrera Atxulondo kultur etxean.

Agurrak



Zorionak pottoli!
Dune Sarasola Balerdi (Alegia).
Gaur urtebete. Muxu handi bat etxeko guztien partetik.



Urte askoan!
Nahia Dorronsoro Olamusu (Berrobi). Gaur 6 urte.
Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik.

Irudia **Leitza**



**BUKATU DA
KULTUR AROA**

Larunbatean bukatu zen Kultur Aroa, III. Sagardo Egunarekin. Pixkana pixkana hasi zen jendea plazara gerturatzen, eta iluntzerako giro bikaina zegoan. Guztira 20 sagardo mota dastatzeko aukera izan zen. Aurreko egunean, ostiralean, leitzarrek sagardoa dastatzeari buruzko hitzaldian hartu ahal izan zuten parte. Aipatu moduan sagardoaren inguruko bi ekitaldi hauekin agurtu dute Kultur Aroa. Maiatzaren 18an hasi ziren kultur ekitaldiak, eta pasa den asteburua bitarte hitzaldietan, tailerretan, eta mendi irteera batean parte hartzeko aukera izan dute herritarrek. Era berean, kontzertuak eta kalejirak izan dira XXXIV. Kultur Aro honetan. A. IMAZ

elduaiein **SAN JOANETAN ZUREKIN BAT!**

UZTAILA EDO/ETA ABUZTUAN ZEHAR IKASTARO TRINKOAK

Hizketza, dantza, abestiak, jostaketa, kirolak, iraketa, abestiak, iraketa, abestiak...

LUDOTEKA UZTAILEAN

2011 BEARAIN FAMILIA

www.elduaiein.com

DONOSTIA: DARRIKARRETA, T. 943 31 07 00
BILBAO: KALANDEKETA, T. 943 31 07 00
TOLOSA (4. erroturik), T. 943 67 47 00

LASARTE, T. 943 31 07 00
URRUTIA, T. 943 05 00 00
VILA ARROKUA, T. 943 05 00 00
ALEGIA, T. 943 40 57 00

ibarrako

gazte FESTAK

gazteon irrintziak izan dezala oihartzuna

ekainak 17-18-19

leguntzain: **Tolosaldeko eta Leitzaaldeko hitza**